# 2016KO EKITALDIAN 347 EREDUA AURKEZTEKO DERRIGORTASUNA

<table>
<tr><th>Behartuta daudenak</th><th>Eginiko jarduera</th><th>Tributazioa</th><th colspan="2">347 eredua aurkeztu behar dute?</th><th></th></tr>
<tr><td rowspan="4">Pertsona fisikoak edo nortasun juridikorik gabeko erakundeak (ZFAko 34.3 art), zerga-egoitza Bizkaian badute</td><td>Ekonomia-jarduerak</td><td>Ekonomia-jardueren etekinak PFEZean</td><td colspan="2">EZ (140 eredua aurkeztu behar dute)</td><td rowspan="5">-Haiekin eragiketak egin dituzten pertsona edo erakunde guztiak zerrendatu behar dituzte, baldin eta eragiketa horien guztien zenbatekoa pertsona edo erakunde bakoitzerako 3.005,06 euro baino gehiago izan bada urte naturalean zehar; horretarako, bereizita konputatuko dira ondasun edo zerbitzuen emateak eta eskuraketak. Eragiketa horiei buruzko informazioa hiruhilekotan banakatuta emango da.<br><br>-Eragiketen zenbatekotzat kontraprestazioaren zenbateko osoa hartuko da (BEZaren zerga-oinarria zehazteko arauak aplikatzetik ateratzen dena, baita BEZaren pean ez dauden eta salbuetsita dauden eragiketei aplikatzetik ateratzen dena ere).BEZaren pean eta salbuetsi gabe dauden eragiketen kasuan, konpentsazio osoen zenbatekoari jasanarazitako edo jasandako zergaren kuoten eta baliokidetasun-errekarguen zenbatekoa gehitu behar zaio, bai eta —halakorik badago— nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezian jasotako edo ordaindutako konpentsazioak ere.</td></tr>
<tr><td>BEZetik salbuetsita dauden etxebizitzen errentamenduak</td><td>Kapital higiezinaren etekinak PFEZean</td><td colspan="2">EZ</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Zergapean eta BEZetik salbuetsita ez dauden negozio-lokalen errentamenduak</td><td rowspan="2">Kapital higiezinaren etekinak (lokala) edo higigarriarenak (negozioa + lokala) PFEZean</td><td>180 eredua aurkezten badute</td><td>EZ</td></tr>
<tr><td>180 eredua aurkezten ez badute</td><td>BAI (eredua paperean aurkeztu behar dute Ogasunean, ez BILA edo Bizkaibai erabiliz)</td></tr>
<tr><td colspan="2">Pertsona juridikoak, publikoak zein pribatuak</td><td colspan="2">Ekonomia-jarduera egiten badute</td><td>BAI (BILA plataformaren bidez aurkeztu behar dute)</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td>Gizarte-izaerako establezimendu pribatuak</td><td rowspan="2">Ekonomia-jarduera egiten ez badute</td><td rowspan="2">BAI (BILA plataformaren bidez aukerako aurkeztu behar dute)</td><td rowspan="2">Jabeen erkidegoek eta gizarte-izaerako establezimenduek egiten dituzten ondasun- eta zerbitzu-eskuraketa guztiak aitortu behar dituzte (ekonomia-jarduera izan ez arren), hauek izan ezik:<br>• Erabilera eta kontsumo komunitariorako edozein motatako erregaien eta energia elektrikoaren hornidura.<br>• Erabilera eta kontsumo komunitariorako ur hornidura.<br>• Gune eta elementu komunekin zerikusia duten ondasunak eta eskubideak aseguratzea xede duten aseguruen ondoriozkoak.</td></tr>
<tr><td>Erakundeak (49/1960 Legea, jabetza horizontalekoa): jabeen erkidegoak, azpierkidegoak…</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td>Administrazio publikoak edo haietan sartutako erakundeak, ganberak eta korporazioak, profesionalen elkargo eta elkarte publikoak, gizarte-aurreikuspeneko mutualitate publikoak eta gainerako erakunde publikoak (Gizarte Segurantzaren kudeatzaileak barne), alderdi politikoak, sindikatuak eta enpresaburuen elkarteak</td><td>• Beste pertsona edo erakunde batzuei ondasunak edo zerbitzuak eskuratu badizkiete, beren jarduera enpresarial edo profesionaletik kanpo, edo baita izaera horretako jarduerak egiten ez badituzte ere, baldin eta eskuraketa horien guztien zenbatekoa pertsona edo erakunde bakoitzerako 3.005,06 euro baino gehiago izan bada urte naturalean zehar.<br>• Pertsona edo erakundeei diru-laguntza, sorospen edo laguntzak ordaindu badizkiete, haien izaera edozein dela ere, urtean ordaindutakoaren zenbatekoa 3.005,06 euro baino gehiago izan ala ez.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Besteak beste bazkideen, kideen edo elkargokideen kontura ordainsari profesionalak edo jabetza intelektualaren edo industrialaren edo egilearen jabetzaren ondoriozko eskubideak kobratzen dituzten sozietateak, elkarteak, profesionalen elkargoak eta bestelako erakundeak, baldin eta egotzitako pertsona bakoitzari ordaindutako zenbatekoa 300,51 euro baino handiagoa bada.</td></tr>
</table>